

Ik alaitzen dok giza-muiña
bikain emonez bizia!

Metatuz doa mai birundan
errautsa, ta kea ingurun;
goizeko ordu biak soiñutzen
eliz-ezkillak txit astun.

Ez dot soiñu-zaratarik nai,
ez begi-zizta goxorik;
gizaki danok ez gabiltza
irrikil bardña nairik.

I, mutur-estu, sabel-sakon,
ardao-bonbil maitia!
Ik alaitzen dok giza-muiña
bikain emonez bizia!

JAINKO BEGIRAKUNA

Loratsu dago itxas egala,
aldatza, barriz, biguna;
jai jantziz oro, dirdir-keiñuka,
kaioak ba-dau laguna...

Eskoi aldera, zoragarriro,
eguzki galdaz urduri,
zingira zabal geldi-eziña
ispillu garden iduri.

Basa-lilidun ontzi batean,
eresi-oska ari dira
amabi gazte, bekoki alai,
jai ospatsuz bai'lira.

Ur-ertz zear aurtxo txiki bat,
irribar gozoz dabilla;
ustekabea besotxo biak
luzatzen itxas billa.

—«Zatoz gurekin» —gazte zoroak
ontzi barrutik diñotse.
—«Bai, bai, oraintxe» —oiu leiatsuz
umetxoak darantzutse.

Baiña ontzia noiz ikutuko
urraren ertza egola,
aurtxo txikia, oso alaikor,
bertan sartzera joiala...

Beso leun batek, atzekaldetik,
oratu dautso samurki.
Beso pin ori, norena ete?
Bere aitarena, noski.

Ego-zabalka kaioak urru...
Bat-batez galpen larria:
arkaitza jorik, urpean murgil
amabi gazteen ontzia.

Zer galzoritik asagotu dan
aur setatiak ikusiz,
«Eskerrik asko, Aita maitea»,
diño dardar, zotin aundiz.

Oiñaze-larrak iñoiz biotza
odol ba'dautzu, ez bildur:
zu jagon naita Jainko-eskua
beti dozu, zugandik ur.